

Juanita Ibaibarriaga

Juanita Ibaibarriaga Ermuan jaio zen 1934. urtean, Iturriaganekeo etxean, eta berari eta bere senideei Pelaionekuak esaten zieten.

Ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen (bata txikitan hil zitzaion). Haiexek hazi eta heztera dedikatu zen buru belarri: inguruan baina beti loba aldra itzela, ze 'tia Juanita' berezia zen.

Autodidakta eta irakurle amorratua, bere inguruan gertatzen zenaz jantzita egotea gustatzen zitzaion Pertsona irekia zen, irizpide zabalekoa, dena eta denekin errespetatzen ohitua.

Mendia zen bere aparteko beste zaletasuna. Egunero egiten zuen bere osteratxoa eta handik bueltan aldean beti ekartzen zuen zerbai, bere amari entzunda zion eta "Euskal Herriko mendiak oso aberatsak dira"; berbena-belarrak edo beherakoa kentzeko landareren bat edo tentsioa jaisteko asun txortaren bat... Ondo ezagutzen zituen denak, euren izen eta ezaugarri guztiekin. Alaia eta berba gutxikoa, beti zeukan minaren puntan erantzun edo kontseilurik egokiena. Atsegina zen berarekin berba egitea, ze hemendik ez bazen, handik agertzen zuen bere bizitzaren jakituria, bere filosofia eta gauzak ikusteko modua. Gauzak datozen moduan lasai hartzekoa, "konponduko don neska!" zen bere esaldietako bat.

Beste aita eta amarekin askorekin batera Ermuko familia elkartean borrokatu zuen eta ikastola aurrera ateratzeko. Bere seme-alaba etxerako lanak lagunduz, euskaraz irakurtzera eta idaztera zaletu zen eta haiek koxkortu zirenean, lan sozialak egiten hasi zen.

Behargin fin eta nekaezina, EUSKAL BIRUSA elkartearen sorrera konpartitu zuen beste pertsona batzuekin, gogor eta lan eginez bertako hizkuntza, ohiturak eta abestien berreskurapenean. DROGETENITTURRI herri aldizkari-ko hasierako zenbakietan kolaboratzaile moduan agertzen da.

Juanita 1992an hil zen, 58 urte zituela, adorerik handienaz, gaixotasun mingarri bati aurre egin ostean. Etxekoandre arrunt eta apala izan zen, Ermuko beste edozein andrazko modura, estimatua, bere ingurukoek maitatua, kultua eta besteentzako beharra egiteko zein bizirik mantendu behar zenari eusteko astia atera zuena.

XVII.

Juanita Ibaibarriaga Literatur Saria

Antolatzailea



Babesleak



Ermuko gazte eta helduen artean euskaraz idazteko zaletasuna pizteko asmoz, Euskal Birusak eta Udaleko Euskara Sailak 'Juanita Ibaibarriaga' Sariaren XVII. Edizioa aurkezten dute.

Lehiaketa honetan ermuar guztiek parte hartu ahal izango dute egongo diren bi modalitateetan.

Euskal Birusa Elkarte Kulturala
Erdikokale 2-1 / 247 PK
48260 Ermua

Ermuko Udala
Euskara Saila
'Juanita Ibaibarriaga Saria'
48260 Ermua

1. MODALITATEA IPUIN LEHIAKETA

- Adin tartea:
LH 3, 4, 5, 6 eta DBH 1 eta 2.

- Saria: 40 euroko erosketa-txekea.
Zenbateko hori eskola-material
zein liburu edo jostailuetan
jasoko dute irabazleek.

2. MODALITATEA ERREPORTAJEA

- Adin tartea: 1996. urtean edo lehenago jaiotakoak.
- Erreportajearen egilea, pertsona bakarra edo taldea izan daiteke, eta bakoitzak nahi adina erreportaje aurkez dezake.
- Aurkeztuko diren lanak, erreportajeak izango dira, barne har ditzaketelarik elkarrizketak, aipamenak, dokumentuak, edo interesgarritzat jotzen den edozein material.
- Gaia: edozein garaitakoa eta edozein alorretakoa izan daiteke, berdin iraganeko urtetan gertaturikoa, berdin gaur egunekoa eta edozein gauzari buruzkoa, baina beti ere, nahitaez, Ermua herriarekin zerikusia duena. Adibidez: Ermuko kirol eta aisialdirako aukerak, DBH eta gero zer?, gazteen lokalak...
- Lanarekin batera, 2 argazki eta/edo marrazki ere aurkeztu beharko dira.
- Lanak epaitzeko kontuan hartuko dena: gaiaren erakargarritasuna, emandako informazioaren deigarritasuna eta ulergarritasuna, edukien ekarpena, originaltasuna, idazkera...
- Lanaren aurkezpena: 4.600 eta 5.600 karaktere bitartean izan beharko ditu. DinA-4 neurrian aurkeztuko dira ordenadorez idatzita, baita CD baten ere, word formatuan.
- Saria: 400 euro.
- Erreportajeak, sarituak izan do ez, Drogetenitturri herri aldizkarian, eta/edo www.euskalbirusa.org webgunean argitaratu daitezke.

- Lanen jabetza egilearena izango da. Euskal Birusak bere gain hartzen du lanak urtebeteko epean argitaratzeko eskubidea.



- Lanak aurkezteko: Idazlan edo erreportajea kartazal handi baten sartu, ezizenez sinatuta. Barruan kartazal txikiago baten, ondorengoak jarri: Izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.
- Lanak aurkezteko azken eguna 2010eko azaroaren 3a, asteazkena, izango da. Euskal Birusaren egoitzara edo Udaleko Euskara Sailera bidali daitezke.
- Sariketa honetan parte hartzen duten guztiek oinarri hauek onartuko dituzte.

*Sari ematea:
2010eko azaroaren 25ean,
osteguna, 18:00etan,
Lobiano Kulturgunean.*